



## Mondragon Unibertsitateak eta WATS Team-ek irakatsiko duten Kirol-Enpresaren Berrikuntza eta Kudeaketako Masterraren lehenengo edizioak LABORAL Kutxaren sostengua edukiko du

Kirol-sektoreari bideratutako ekintzailtza eta enpresa-formakuntza bateratzen dituen master berritzaile honek (Mondragon Unibertsitateak eta WATS Team-ek Bilbon irakasten dutena) LABORAL Kutxaren sostengua edukiko du ikasleen enpresa-proiektuak sustatzeko helburuarekin.



Datorren urrian Mondragon Unibertsitatearen Bilboko Campus-ean **Kirol-Enpresaren Berrikuntza eta Kudeaketako Masterraren** lehenengo edizioa hasiko da, WATS Team *startup*-arekin batera irakatsiko dena. Masterra graduatu berri diren, kirol-zaleak diren eta enpresaren munduarenganako jakingura daukaten gazteei dago zuzenduta, eta Mondragon Team Academy-ren “*Team learning by creating*” metodologian dago oinarrituta. Lehenengo hilabeteetik, ikasleek kirol-enpresa propioa sortuko dute eta hainbat herrialdetara bidaiatuko dute, ikasi eta benetako proiektuetan lan egiten duten bitartean.

Kirol-enpresa hori martxan jartzeko unean, gazteek **LABORAL Kutxaren** sostengua edukiko dute. Kutxa Masterraren lankide estrategikoa da eta hasierako finantza-kapital bat eskainiko du enpresa horiek eratzeko eta lehenengo hilabeteetan aurrera egin dezaten. Halaber, parte-hartzaileei banku-entitate gisa daukan jakintza eta aholkularitza guztia eskainiko die; izan ere, kutxak jardunbide luzea dauka Euskadin enpresa txiki eta ertainen (ETEak) munduan eta enpresa-proiektu berritzaile eta ekintzaileen eta talentu gazteen sostenguan.

Masterraren xedea profesionalei formakuntza eskaintzea da, **kirol-enpresaren sektorean negozioak ulertzeko eta garatzeko** beharrezkoak diren gaitasunak lortzeko, bai eta **kirol-taldeak**



**kudeatzeko.** Hala, gai izango dira kirol-enpresaren munduan dauden entitateak sortu eta kudeatzeko. Gainera, 2021eko erdian AEBra eta Asiara egitea aurreikusita dauden bidaien bidez, ikasleek sektorearen ikuspegi globala ulertuko dute nazioarteko esperientzetaz baliatuz. Enpresa-proiektu propioa edukiko dutenez, eguneroko bizitzan proiektu errealekin lanean aritzea oinarri gisa duen ikaskuntzari ekarpenak egingo dizkiote.



**Formakuntza zuzenekoa da** eta Mondragon Unibertsitatearen Bilboko Enpresagintza Fakultatean irakatsiko da, 2020ko urritik 2021eko uztailara (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 17:00etara). Halere, Unibertsitateak COVID-19ari aurre egiteko kontingentzia-plan bat dauka, behar izanez gero formakuntza sareko formatu edo formatu erdipresentzial bihurtuko duena. Masterraren karga akademikoa 60 ETCS kreditukoa da. Kirolaren eta enpresa-antolakuntzaren arloetan esperientzia zabala daukaten profesionalek osatzen dute irakasleria; nabarmendu egin daitezke **WATS Team-i lotutako pertsona ospetsu batzuk**, hala nola Julen Guerrero eta Xabi Prieto futbolari ohiak, Patricia Ramírez kirol-psikologo ospetsua eta Jero García, boxeolari ohi eta *Hermano mayor*, bai eta kirolaren, enpresaren, berrikuntzaren eta Unibertsitatea beraren beste aditu batzuk.

**Masterraren azken plazetarako matrikula irekita dago irailean**, eta webgune honetan egin ahalko duzu: [www.wats.team/master](http://www.wats.team/master). Masterra egiteko, ikasleek honako gradu hauetako bat bukatuta eduki behar dute: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Lehen Hezkuntza edo Haur Hezkuntza, Psikologia, Marketina edo Zuzenbidea.

